


I.go IRAKURGAIA: 103. Salmoa

Bialdu egizu Jauna zure arnasa,
eta barrizatu lur azala.



R/. Zu-re ar-na-sa bial-du gu-ga-na, ta lur a-za-la ba-rr-i-tu, Jau-na !



Ene arima goratu **eg**izu Jauna !
Gutziz haundi zaitut, Jauna, **ene** Jainko!
Haundi eta eder **z**agoz jantzia,
estalki **dozu** argia. **R/.**

Bai ugari dirala, Jauna, **Zuk** eginak,
zuhurtasunez eginak zeharo,
lurra zure sorkariz **beta**a dago!
Ene, arima, goratu **eg**izu, Jauna! **R/.**

II. IRAKURGAIA : 15. Salmoa

Zaindu nagizu, Jauna,
babes-bila nator Zugana.




R/. Zeu za- ra, Jau- na, ni- re on-da- re- a.



Jauna da nire ondare eta **ed**ontzia;
zeuk daukazu eskuetan nire **z**oria.
Begi aurrean ipinten dot Jauna beti ;
eskuman daukadala, ez dot dard**ar**arik. **R/.**

III. IRAKURGAIA: Ex 15

Kanta dagiogun Jaunari garai-garai dalako.




R/. Lur o- so-a e- gi- o- zu i- rrin- tzi, Jain-ko-a- ri !

Kanta dagiogun Jaunari garai-garai **dalako**,
zaldi **eta** zaldun itsasora amildu ditualako.
Jauna **da** nire indar **eta** kemen,
Bera izan da nire **salbamen**. R/.

IV. IRAKURGAIA: 29. Salmoa

Goratuko zaitut, Jauna,
onik atara nozulako.



R/. Es -ke-rrak Jau-na-ri, Ha-ren mai-ta-su -na be- ti-ko-a bai-ta.

Goratuko zaitut, Jauna, onik atara no**zulako**,
arerioak nitzaz poztuten utzi ez dituzulako.
Jauna, leizetik nire bizia atara **dozu**,
zulora doazanakandik bizirik gor**de** nozu. R/.

Entzun niri, eta nitzaz erru**ki**, Jauna,
izan zakidaz laguntzai**le**, Jauna.
Negarra, dantza bihurtu **deu**stazu,
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

V. IRAKURGAIA: Is 12

Atarako dituzue urak pozetan
salbamenaren iturrietan.

VI. IRAKURGAIA: 18. Salmoa

Zeuk daukazuz, Jauna, betiko biziaren hitzak.

VII. IRAKURGAIA: 41. Salmoa

Basauntza iturrien egarri biziz bezala,
alan daukat, Jainko,
gogoia egarri biziz Zugana.



R/. Ni-re go-go-a Jain-ko bi-zi-az e-ga-rr-i da.



Nire gogoia Jainkoaz, Jainko biziaz egarri da,
noiz noake Jainkoaren aurpegia ikustera?
Urtzen daukat barruan gogoia hau gogoratuz: [^]
zelan joaten nintzan, jendetzaren aurrean,
Jainkoaren etxera, irrintzika ta goraka, [^]
jaitarrekin batera. **R/.**

edo 50. Salmoa

Bihotz garbi bat, Jainko,
sortu egizu nigan.



R/. E-rru - ki be-ki-gu Jain-ko-a, be-dein-ka gai-za-la.



Zure salbamenaren poza bihurtu **eidazu**,
zure arnasa zabalez sendotu **nagizu**.
Erakutsiko deutesdaz gaiztoiei zure **bideak**
Zugana bihurtuko dira pekatariak. **R/.**